



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: GITARRA

2023-03-04

Nori zuzenduak?

Graduko **Gitarra Interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 24ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Gitarra interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

SOCÍAS, Marco

10:00-11:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

11:00-12:30 Ikasgai nagusiaren edukiei eta garapenari buruzko hitzaldia Marco Socías espezialitate irakaslearen eskutik. Errepertorioaren analisia ikasgaien edukiei eta garapenari buruzko aurkezpena Antonio Duro irakaslearen eskutik eta Tablatura eta Antzinako musikaren interpretazio historikoa ikasgaien edukien aurkezpena eta garapena Rafael Bonavita irakaslearen eskutik. Pieza labur bat interpretatuko da, aurkezpen gisa, Marco Socíasen eskutik.

12:30-14:30 Espezialitate irakasleak hala nahi duten ikasle aktiboekin eskolak.

14:30-15:30 Atsedenaldia

15:30-18:30 Espezialitate irakasleak hala nahi duten ikasle aktiboekin eskolak

18:30-19:30 Musikeneko gitarra ikasleei eskolak eta horien entzunaldi laburra

Gitarra jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: dpto.cuerda@musikene.net